43 eraikinetatik 14k kalifikazio energetikoa izan behar dute plan hau idazteko unean. 14 eraikinen kalifikazio energetikoa dago. Hauek dira balioak:

Número total de edificios, según calificación	2023
A	1
B	0
C	1
D	6
E	5
F	0
G	1

% edificios con calificación A o B 7%

2030erako, 14 eraikinetatik gutxienez % 40k A edo B kalifikazioa izan beharko dute. Hau da, 6 eraikinek.

3.3.3 Ibilgailuen atala

Ibilgailuen ataletik eratorritako kontsumoen inbentarioan, ibilgailuen kopurua, erabilitako erregai mota bakoitzaren guztizko kopurua eta ibilgailu bakoitza zertarako erabiltzen den banakatzen dira.

Zumaiako Udalaren ibilgailu motordunen flota 7 ibilgailuk osatzen dute, autoen, kamioien eta makinen artean. Ibilgailu horiek, batez ere, 2 sailetan biltzen dira: Brigada obrak eta Udaltzaingoa.

3.4 Iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera

4/2019 Legea argitaratu aurretik, Erosketen Zentralean sinatutako energia elektrikoaren erosketa-kontratuak eskatzen du eskuratutako energiaren % 100 jatorri berriztagarrikoa izatea.

Helburua da 2030erako, eraikin guztietan, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazio nahikoak izatea Zumaiako kontsumo osoaren % 32 hornitzeko, aprobetxamendu termikoko sistemak eta elektrizitatea sortzeko sistemak barne.

Legeak honela definitzen du iturri berriztagarrietatik lortutako energia: iturri berriztagarri ez-fosiletatik eskuratutako energia, hala nola energia hidraulikoa, eolikoa, eguzki-energia, geotermikoa, ozeanikoa, besteak beste. Biomasaren kasuan, berriztagarritzat jotzen da basoen kudeaketa jasangarriko ziurtapen-sistema akreditatu bat daukaten baso-ustiategietatik etortzen den energia.

2018an, Udal Energia Plan honen oinarri-urtean, Zumaiak ez du energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalaziorik.

4. 4/2019 LEGEAREN BETETZE-MAILA

Aintzat hartuta 2023 –2030 aldirako Zumaiako Energia Jarduketa Plana Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean markatutako baldintzetan eta helburuetan oinarritzen dela, dokumentu hau idatzi den unean Zumaiak dauzkan helburuen betetze-mailaren erradiografia egin da. Legearen egitura jarraituz, analisia egin da honako zutabe hauetan:

- Helburuak eta ekintza nagusiak
- Helburuak eta ekintzak udal eraikinen esparruan
- Aintzat hartu beharreko beste betebehar batzuk

4.1 II. kapitulua: Helburuak eta ekintzak – 1. atala: helburuak eta ekintza orokorrak

KONTZEPTUA	EPEA:	EGOERA
11. art. - Inbentarioa: eraikinak • Azalera erabilgarri eta eraikitako azalerako osoko m2-ak • Kalifikazio energetikoa (A,B,C,D,E,F) • Kontsumo eta gastu energetikoa	2020ko martxoa	EGINDA
11. art. - Inbentarioa: ibilgailuen atala • Motordun ibilgailuen eta motor gabeko ibilgailuen kopurua • Erregai mota bakoitzaren kopurua • Ibilgailuaren erabilera mota	2020ko martxoa	EGINDA
11. art. - Inbentarioa: argiteria publikoa • Kontsumoen inbentarioa	2020ko martxoa	EGINDA
12. art. – Kontsumoen kontrola • Energia elektrikoko kontagailuak	2020ko martxoa	EGINDA
12. art. – Kontsumoen kontrola • Kontsumoei buruzko informazioa izatea	2020ko martxoa	EGINDA
12. art. – Kontsumoen kontrola • Energiaren kontsumoa kontrolatzea eraikineko	2020ko martxoa	EGINDA
13. art. - Auditoretza energetikoak (4 urtean behin) • >70kW-ko potentzia-mugako eraikinak	2021eko martxoa	EGINDA
13. art. - Auditoretza energetikoa argiteriari	2020 martxoa	EGINDA
14. art. - Jarduketa energetikoko plana (5.000 biztanle baino gutxiagoko herriak)	2020ko martxoa	EGINDA
17. art. - Iturri berriztagarrietatik datozen energiak erabiltzea • Energia elektrikoa erosteko lizitazioetan eskatuko da energiaren % 100 jatorri berriztagarrikoa izateko	2019ko martxoa	EGINDA

17. art. - Iturri berriztagarrietatik datozen energiak erabiltzea • Eraikinek energia berriztagarrien beharreko instalazioak izan behar dituzte administrazioaren % 32 hornitzeko, bai aprobetxamendu termikoko sistemetarako, bai energia sortzekoetarako.	2030. urtea	**UEPn PROIEKTATUA**
17. art. - Iturri berriztagarrietatik datozen energiak erabiltzea • Lizitazioetan jasangarritasun energetikoko klausulak gehitzea	2019ko martxoa	**EGITEN**

4.2 II. kapitulua: Helburuak eta ekintzak – 2. atal: Eraikinak

KONTZEPTUA	EPEA:	EGOERA
19. art. – Eraikinen kalifikazio energetikoa • Eraikin guztiek Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan behar bezala inskribatutako ziurtapen energetikoa eduki behar dute (egiaztapenak 2019-02-26ko 25/2019 Dekretuan ezarritako prozedura jarraituz egin behar dira).	2020ko martxoa	**EGINDA**
19. art. – Eraikinen kalifikazio energetikoa • B maila: eraikinen % 40k kalifikazioa hobetu beharko dute B MAILARAINO, justifikatutako arrazoi bat egon ezean.	2030. urtea	**UEPn PROIEKTATUA**
20. art. – Eraikin berrien eta eraberritze integralak egin behar zaizkien eraikinen kalifikazio energetikoa • Obrak 2021ean hastekotan, energia kontsumo ia nulua (A maila) izan behar dute, salbuespenik gabe.	2021eko martxoa	**EGINDA**

4.3 II. kapitulua: Helburuak eta ekintzak – 3. atala: Garraioa eta mugikortasuna

KONTZEPTUA	EPEA:	EGOERA
21. art. – Garraioa eta mugikortasuna – Ibilgailuetan ordezko erregaiak erabiltzea • Erositako ibilgailu guztiek (% 100) ordezko erregaiak erabili beharko dituzte.	2020ko martxoa	**EGINDA** *1 VE brigada* *2 VE udaltzaing.*
21. art. – Garraioa eta mugikortasuna – Ibilgailuetan ordezko erregaiak erabiltzea • Eraikin berriek ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak eta bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko lekuak izan beharko dituzte		**UEPn PROIEKTATUA** *2023 aurrekontua: Kargatzeko 2 puntu*
21. art. – Garraioa eta mugikortasuna – Ibilgailuetan ordezko erregaiak erabiltzea • Ibilgailu ez-motorizatuak izango dituzte, ahal den neurrian, herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuen artean: bizikletak, patinete elektrikoa, etab.		**EGINDA**
22. art. – Garraioa eta mugikortasuna – Bidaiariak errepidez eramateko zerbitzu publikorako ibilgailuak.	2020. urtea	**HMJPn PROIEKTATUA**
23. art. – Ibilgailuen zirkulazioari mugak jartzea		**EGINDA** *Erribera Kalea, oinezkoentzat egina*
24. art. – Mugikortasun-planak	2021eko martxoa	**EGITEN**

4.4 II. kapitulua: Helburuak eta ekintzak – 4. atala: Beste betebehar batzuk

KONTZEPTUA	EPEA:	EGOERA
25. art. – Lankidetza • Bermatzea ziurtapen energetikoari buruzko arauetan jasotako printzipio eta betekizunak integratzen direla, bereziki administrazio horien sustapen-, plangintza-, erregulazio- eta fiskalitate-tresnen arloan.		EGITEN
26. art. – Publizitatea (neurriak eta gardentasuna) • Energia gehiago aurrezteko eta efizientzia energetikoa areagotzeko Udalak hartutako neurriak argitaratzea (14. art.). • Txosten bat argitaratzea. Izan behar dituen gutxieneko alderdiak artikulu horretan zehazten dira.	2 urtean behin 2019tik	EGITEN
27. art. - Prestakuntza (<25.000 bizt.) • PRESTAKUNTZA-PLANA egitea, instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak energia aurrezteko eta efizientzia energetikoko tekniketan prestatzeko.	2021eko martxoa	UEPn PROIEKTATUA
28. art. - Etiketak ikusgai jartzea • Efizientzia energetikoari buruzko etiketak ikusgai jarri beharko dira eraikin guztiak erregistroan inskribatu bezain laster. • Ordezko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailu berriak erakusgarri jartzea.	2019ko martxoa	EGINDA

5. PLANIFIKATUTAKO HOBEKUNTZA-EKINTZAK ETA -NEURRIAK

Lortu nahi diren helburuak anbizio handikoak dira eta eragin handiko ekintzak behar dira horiek lortzeko. Egungo kontsumoak aintzat hartuta (energia primarioaren7.879.405,21 kWh), gaur egungo energia berriztagarrien erabilera txikia eta dauden eraikinen kalifikazio energetikoek (D/E batez besteko kalifikazioa), energia efizientziako zenbait jarduketa proposatu dira, helburu bikoitzarekin: helburuak betetzea, energia-aurrezkien oreka mantenduta eta kostu ekonomikoen murrizketa, Planaren indarraldian itzulera-epeetako inbertsioak amortizatzeko.

Hobekuntzak kontsumoen optimizazioan eta horiek iturri berriztagarrietatik erabiltzean planteatzen dira; horrela, egindako inbertsioen eragin positiboa optimizatuko da. Bi helburuek berekin dakarte kalifikazio energetikoa hobetzea.

5.1 Estrategiak eraikinei dagokienez

Aurretik aztertu denez, eraikinen multzoak Zumaiako Udalaren urteko energia-kontsumo primarioaren % 68 dakar. 43 etxebizitzen artean, hautatutako 10 eraikinek udalerriaren energia primarioaren % 65 dakarte.

Horregatik, hobekuntzak kontsumoen optimizazioan eta horiek iturri berriztagarrietatik erabiltzean planteatzen dira; horrela, egindako inbertsioen eragin positiboa optimizatuko da. Bi helburuek berekin dakarte kalifikazio energetikoa hobetzea.

5.1.1 Hobekuntza-neurrien laburpena

Código centro	Nombre de centro	Calificación, Emisiones CO2	Calificación prevista 2030	Energía primaria 2018, kWh	Energía primaria 2030, kWh	Ahorro energia primaria, kWh	Iluminación	Calderas	Climatizacion	Sist. Distribucion	Envolvente	Instalacion FV	Biomasa	Gestión energética	Otros
Alumbrado público	46 CM y 2.344 luminarias	F	A	2.404.929,03	700.716,98	1.704.212,06	√							√	
E01 - Algorri	Algorri	E	C	115.148,74	38.595,14	76.553,59	√					√		√	
E02 - Alondegia	Alondegia	C	B	193.844,48	82.589,92	111.254,56	√					√		√	
E05 - Foronda	Foronda	E	A	167.659,18	110.678,60	56.980,58	√	√		√			√	√	
E06 - Zaharren Egoitza	Zaharren Egoitza	E	D	230.639,02	138.458,68	92.180,34	√	√				√	√	√	
E08 - Ubillos	Ubillos	E	D	90.597,31	56.291,62	34.305,69	√			√				√	
E09 - Udaletxea	Udaletxea	D	B	415.512,56	342.291,74	73.220,82	√		√					√	
E10 - Kiroldegia	Kiroldegia	D	B	2.688.369,86	1.820.640,31	867.729,55		√				√	√	√	
E11 - Aita Mari Eskola	Aita Mari Eskola	D	B	223.396,71	117.119,94	106.276,77	√	√				√	√	√	
E12 - Sagarbide Eskola y frontoia	Sagarbide Eskola y frontoia	D	B	432.100,51	148.483,50	283.617,00	√	√				√	√	√	
E39 - Aita Mari Zinea	Aita Mari Zinea			44.863,08	32.757,95	12.105,14		√					√	√	
Total				**7.007.060,47**	**3.588.624,37**	**3.418.436,10**									

5.1.2 Jarduketen banakapena eraikin bakoitzeko

E01 – Algorri

Eraikinak gaur egun energia primarioaren115.148,74 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 2. Gaur egun E kalifikazio energetikoa du. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologien eta detektagailuen ordez aldatzea eremu komunetan.
- Joule efektuko berogailu-sistema efizientzia handiko bero-ponpa bidezko girotze-sistemaren ordez (aerotermikoa) aldatzea.
- Inguratzailearen birgaitze energetikoa SATE fatxadaren bidez eta arotzeriak ordezkatzea.
- 25 kWp-ko autokontsumoko instalazio fotovoltaikoa.

E02- Alondegia

Eraikinak gaur egun energia primarioaren193.844,48 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 3. Gaur egun C kalifikazio energetikoa du. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologien eta detektagailuen ordez aldatzea inguru komunetan.
- 35 kWp-ko autokontsumoko instalazio fotovoltaikoa.

*Instalazio fotovoltaikoa beste udal estalki batean ezarri ahal da, hala nola Sagarbide Eskolan eta/edo Aitzuri frontoian. Azterketak konpentsazioaren balantze energetikoa aztertu du Alondegia zentroaren kontsumo elektrikoan.

E05- Foronda

Eraikinak gaur egun energia primarioaren167.659,18 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 2. Gaur egun C kalifikazio energetikoa du. Eraikin hori 10 eraikin nagusien multzoan dago, gasolioa duelako berogailurako energia-iturri gisa. Gasolioa, egungo araudiak adierazten duenez, eraikinetako sistema termikoetatik kendu behar da 2030 baino lehen. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologien eta detektagailuen ordez aldatzea inguru komunetan.
- Galdara-gela berritzea, eta biomasako galdara berria jartzea. Horrez gain, banaketa-sisteman balbula termostatikoak instalatzea, eta gasolioa Zumaiako eraikinetako energia-iturri gisa kentzea.

E06-Zaharren Egoitza

Eraikinak gaur egun energia primarioaren230.639,02 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 3. Gaur egun E kalifikazio energetikoa du. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologiaren ordez aldatzea.
- Eraikinaren deskarbonizazioa. Gas naturaleko galdara bidezko egungo berogailu sistema errendimendu handiko bero-ponpa bidezko girotze-sistemaren ordez (aerotermikoa).
- 35 kWp-ko autokontsumoko instalazio fotovoltaikoa.

*Instalazio fotovoltaikoa beste udal estalki batean ezarri ahal da, hala nola Sagarbide Eskolan eta/edo Aitzuri frontoian. Azterketak konpentsazioaren balantze energetikoa aztertu du Zaharren Egoitza zentroaren kontsumo elektrikoan.

E09-Udaletxea

Eraikinak gaur egun energia primarioaren415.512,56 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 6. Gaur egun D kalifikazio energetikoa du. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologiaren ordez aldatzea.
- Zentroaren deskarbonizazioa berogailurako aerotermikoa jarrita.

E10-Kiroldegia

Eraikinak gaur egun energia primarioaren2.688.369,86 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 39. Gaur egun D kalifikazio energetikoa du. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologiaren ordez aldatzea.
- Galdara-gela berritzea; horretarako, biomasa-galdara jartzea laguntza gisa, galdara nagusi gisa gas naturaleko galdara jarrita.
- 250 kWp-ko autokontsumoko instalazio fotovoltaikoa.

E11-Aita Mari Eskola

Eraikinak gaur egun energia primarioaren223.396,71 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 3. Gaur egun D kalifikazio energetikoa du. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologiaren ordez aldatzea.
- Galdara-gela berritzea; horretarako, biomasa-galdara jartzea sorgailu nagusi gisa, gas naturala laguntza gisa.
- 25 kWp-ko autokontsumoko instalazio fotovoltaikoa.

E12-Sagarbide Eskola

Eraikinak gaur egun energia primarioaren432.100,51 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 2. Gaur egun D kalifikazio energetikoa du. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Argiak LED teknologiaren ordez aldatzea.
- Galdara-gela berritzea; horretarako, biomasa-galdara jartzea sorgailu nagusi gisa, gas naturala laguntza gisa.
- 35 kWp-ko autokontsumoko instalazio fotovoltaikoa.

E39 – Aita Mari Zinea

Eraikinak gaur egun energia primarioaren44.863,08 kWh kontsumitzen ditu, hau da, Zumaiari lotutako kontsumoaren % 1. Ez dauka berogailu energetikorik, baina gasolioa dauka sorkuntza termikorako. Eraikin hori 10 eraikin nagusien multzoan dago, gasolioa duelako berogailurako energia-iturri gisa. Gasolioa, egungo araudiak adierazten duenez, eraikinetako sistema termikoetatik kendu behar da 2030 baino lehen. Hona hemen planteatutako hobekuntzak:

- Galdara-gela berritzea, eta biomasako galdara berria jartzea. Horrez gain, banaketa-sisteman balbula termostatikoak instalatzea, eta gasolioa Zumaiako eraikinetako energia-iturri gisa kentzea.

5.2 Estrategiak argiteria publikoari dagokionez

Aurretik aztertu denez, argiteria publikoaren multzoak Zumaiako Udalaren urteko energia-kontsumo primario osoaren % 32 eta kontsumo elektrikoaren % 48 dakar.

Multzo horren berrikuntzak kontsumo elektrikoaren murrizketa esanguratsua dakar. Erreferentziazko urtean, argiteria publikoaren kontsumoak 2.404.929,03 kWh-koa izan zen.

Argiak LED teknologien bidez oso-osorik aldatzeak eta aginte- eta erregulazio-zentroak egokitzeak aukera ematen dute 1.704.212,06 kWh inguruko aurrezkiak lortzeko, hau da, guztira % 71ko aurrezkia.

Nº	Tipo medida	Medida	Edificio/CM	Energia afectada	Consumo EF año base del edificio, kWh	Ahorro EF en la medida, kWh
1	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM JULIO BEOBIDE MARINA	Eléctrica	10.156,00	7.721,61
2	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión + adapt soporte/columna	CM FARO	Eléctrica	5.723,00	4.351,20
3	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión + adapt soporte/columna	CM CIM - CENTRO INTERPRET	Eléctrica	30.904,00	23.496,31
4	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión + adapt soporte/columna	CM ITZURUN	Eléctrica	6.688,00	5.084,89
5	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM ITZURUN HONDARTZA	Eléctrica	4.117,00	3.130,16
6	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM LARRETXO	Eléctrica	37.884,00	28.803,21
7	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitucion parcial lum a LED + Retrofit + nodo telegestion	CM ARDANTZABIDE	Eléctrica	14.579,00	11.084,41
8	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM BIDABEAZPIA	Eléctrica	28.562,00	21.715,69
9	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM BIDEZARRETA	Eléctrica	5.430,00	4.128,43
10	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM JADARRE	Eléctrica	9.015,00	6.854,10
11	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM KANTAURI	Eléctrica	28.256,00	21.483,04
12	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM ESTAZIOA	Eléctrica	17.683,00	13.444,38
13	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM PUNTANUETA	Eléctrica	72.618,00	55.211,47
14	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM IRIONDO	Eléctrica	4.549,00	3.458,60
15	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM NARRONDO	Eléctrica	1.918,00	1.458,26
16	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión + sustitucion tira LED sin nod	CM ASTILLERO	Eléctrica	6.305,00	4.793,69
17	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión + sustitucion parcial soporte/	CM SANTIXO INDUSTRIAGUNI	Eléctrica	6.275,00	4.770,88
18	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM SANTIXO MARISMAS	Eléctrica	13.635,00	10.366,69
19	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM ARTADI	Eléctrica	3.758,00	2.857,21
20	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM ARTADI CASA NUEVAS	Eléctrica	1.942,00	1.476,50
21	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM JOXE MARI KORTA, 6	Eléctrica	54.371,02	41.338,29
22	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM JOXE MARI KORTA BIS	Eléctrica	69.248,00	52.649,25
23	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM OIKIA ESTRATAZPIA	Eléctrica	5.049,00	3.838,75
24	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión + adapt soporte/columna	CM OIKIA AUZOA	Eléctrica	1.092,00	830,25
25	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM LORE LASALDE	Eléctrica	6.973,00	5.301,57
26	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM XEY	Eléctrica	27.658,00	21.028,38
27	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM URTEGABERRI	Eléctrica	145,00	110,24
28	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM SAN JOSE ALTA	Eléctrica	3.179,00	2.416,99
29	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias parcial por LED + nodo telegestión + mantener LED parci	CM SAN JOSE BAJO	Eléctrica	28.704,00	21.823,65
30	Alumbrado Público	Fase 2 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM SAGARBIDEA	Eléctrica	2.771,00	2.106,79
31	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM AITA MARI, 13	Eléctrica	44.254,00	31.063,00
32	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM ETXEZARRETA ALAI DORR	Eléctrica	69.215,00	46.229,00
33	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM AMAIA PLAZA	Eléctrica	41.071,01	27.129,01
34	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM UDALTZAINGOA, AXULAR	Eléctrica	38.259,00	33.387,00
35	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM AXULAR MONOLITOA. AX	Eléctrica	21.164,00	11.612,00
36	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM BASADI	Eléctrica	61.107,00	50.771,00
37	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM FORUEN ENPARANTZA,13	Eléctrica	14.943,00	4.791,00
38	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM HARATEGI,25	Eléctrica	40.593,00	17.926,00
39	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM 20 ESTAZIOKO INDUSTRIA	Eléctrica	96.424,00	32.935,55
40	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM ONDARTXO PLAZA	Eléctrica	23.405,00	13.618,00
41	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM UPELA PLAZA, 2	Eléctrica	20.748,00	6.224,00
42	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM BASADI KIROLDEGIA, BAS	Eléctrica	32.704,00	5.010,24
43	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM IZUSTARRI	Eléctrica	593,00	193,00
44	Intervencion entre 2018 y 2021	Fase 1 - Sustitución luminarias por LED + nodo telegestión	CM AITA MARI, 40	Eléctrica	1.722,00	102,00

5.3 Estrategiak ibilgailuen atalari dagokionez

Hiri-mugikortasun jasangarriaren esparruan, Udalaren eta langileen ibilgailuen atala eta kanporatutako zerbitzuen zereginetarako eskatutako ibilgailuen atala sustatu behar dira, hiri-mugikortasunaren eta eraginkortasun energetikoko hobekuntza lortze aldera.

5.3.1 Zumaiako Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana garatzea

Zumaiako Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planaren (aurrerantzean, HMJP) helburua da oinezkoen eta ibilgailuen mugikortasuna sustatzea eta horien bizikidetza hobetzea; horrela, konbustio-ibilgailuetatik datozen emisioetatik datozen eta ingurumenarekiko eragin negatiboei heldu nahi zaie.

Urola Kostako Mankomunitatearen Energia Planetik (UKUE) ondorioztatzen denez, garraioaren inpaktu publiko eta pribatua esanguratsua da Zumaiako eskualdean eta udalerrian.



Gráfica nº10
Fuente: Ihobe, Iberdrola, Nortegas

HMJPk udal ibilgailuen atala, parke pribatua, ibilgailuen mugikortasuneko murrizketak, oinezkoen mugikortasuneko eremuen handitzea eta erregai fosilak kontsumitzen ez dituzten beste bitarteko batzuk (hala nola bizikletak) kudeatzeko estrategiak barne hartzen ditu.

Plan horren helburu nagusiek, besteak beste, ildo hauek izan behar dituzte:

- Beste mugikortasun-konponbide batzuei (hala nola konbustio tradizionala) lotutako berotegi efektuko gasak murriztea, eta airearen kalitatea hobetzea.
- Ibilgailu elektrikoen edo emisio txikiko ibilgailuen erabilera handitzea, horrek kontsumitutako energia murriztea eta petroliotik eratorritako erregaien menpekotasun txikiagoa ekarriko baitu.
- Pertsonen mugikortasunerako konponbide jasangarriagoak eta berritzaileagoak izatea, hala nola bizikletak edo patinete elektrikoak.
- Udalaren eraginkortasuna handitzea, ibilgailuen ataleko ibilgailuen kontsumoa txikiagoa izango delako.
- Berezko langileek, bezeroen, hornitzaileen… eskuragarritasuna hobetzea, sharingeko, berriz kargatzeko edo lehentasunezko aparkamenduko konponbideen bidez.

5.3.2 Ibilgailuetan ordezko erregaiak erabiltzea

Ordezko erregaien erabilera sustatuko da, ingurumen-inpaktua murrizteko eta menpekotasuna txikitzeko. 2020tik, erositako ibilgailuen % 100ek ordezko erregaiak erabili behar dituzte.
Esparru horretako estrategia honako hau da:

- pixkanaka udalaren ibilgailuen flota aldatzea, ziklo horren amaierara heltzen diren heinean.
- Udalaren kargatzeko geltokia planifikatzea, udalaren ibilgailuen ataleko ibilgailuentzat.

5.3.3 Lizitazioak, ordezko erregaiak dituzten ibilgailuak sustatzea

Zumaiako Udalak ordezko erregaiak erabiltzen dituzten floten txertaketa eta erabilera sustatuko ditu. Horretarako, lizitazioetan honako hauek gehituko dira: lizitatutako zerbitzuak egikaritzeko ibilgailuak, jasangarritasun energetikoko klausulak eta hiri-mugikortasun jasangarria.

6. BESTE EKIMEN, GAITASUN ETA BALIABIDE BATZUK

6.1 Jasangarritasun Energetikorako Batzordea

4/2019 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, lege honek lortu nahi dituen helburuak bete daitezen, administrazio bakoitzeko erakundeak koordinatzeko, jasangarritasun energetikoaren batzorde bana edo izan daitezkeen eta antzeko ezaugarriak eta zereginak dituzten erakundeak izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historikoetako administrazioek eta udalerrietako administrazioek.

Jasangarritasunaren esparruan egin beharreko zereginak honako hauek izango dira:

- Eraikinen, argiteriaren eta ibilgailuen atalaren inbentarioa onestea.
- Energiaren kontsumo globalaren erreferentziazko oinarrizko maila.
- Estrategia Plana banakatzen den jarduketa energetikoko unitateen definizioa onestea.
- Udalaren Energia Planerako (UEP) baimena ematea.
- Legea betez hartutako neurriak garatzen direla berrikustea eta bermatzea, bai eta bertan ezarritako helburuak betetzen direla.
- Aldian behin Udalaren Energia Planaren egoeraren eta garapenaren berri ematea.

- Urtean behin efizientzia energetikoko jarduketetara bideratutako aurrekontu orokorreko ehunekoa proposatzea.
- UEPn markatutako helburuak hobetzea ahalbidetzen duten azken aurrerapen teknikoak aplikatzeko aukerak aztertzea eta eztabaidatzea.
- Horiekin lotutako beste batzuk, identifikatu ahalko direnak.

6.2 Babesa Komunitate Energetikoei

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoa Energia 2050 estrategiaren ildoetako bat da energia berriztagarrietatik abiatutako energiaren sorrera banatuari erakundeek emandako babesa.

Ildo horretan, Komunitate Energetikoak zenbait esparrutatik sustatzen ari dira, laguntzen eta dirulaguntzen bidez, eta Europako gidalerroen bidez arautuak izaten ari dira.

KOMUNITATE ENERGETIKOAREN OINARRIA (iturria: IDAE)

Komunitate elektrikoek zenbait jarduera egin ditzakete: energia ekoiztu, kontsumitu, biltegiratu partekatu edo saldu. Mota horretako jardueren adibideak autokontsumoa eta sorrera banatua dira; izan ere, faktore garrantzitsua dira ***familia askoren aurrezki energetikorako****, bereziki zaurgarrienentzako, horrela pobrezia energetikoari aurre egin ahal baitiote. Gainera,* ***ohiko konpainia elektronikoekiko menpekotasuna ekidin*** *eta industriaren lehiakortasuna handitzen da. Ingurumen-onurak garrantzitsuak dira, kontsumitutako energia murriztu delako, banatutako energia berriztagarria handitu delako edo erabilitako erregai fosilak murriztu direlako. Horrez gain, gizarte-onurak ere baditu, herritarra ahalduntzen delako, tokiko enplegua sortzen delako, komunitate-ehuna sortzen delako edo jardueraren etekinak komunitatearentzat lehentasunezkoak diren alderdietan berrinbertitzen direlako.*

ESKURAGARRI DAUDEN TEKNOLOGIAK

Energiaren sorkuntza banatua gaur egun eskuragarri dauden teknologien bidez egiten da, hala nola aerotermikoa, hidrotermikoa, geotermikoa, eguzki-energia termikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa eta biomasa. Azken hilabeteetan Komunitate Energetikoen artean eguzki-instalazio fotovoltaikodun proiektuak

ugaritu badira ere, gogorarazi behar da beste teknologia batzuk daudela eskuragarri.

Komunitate Energetikoak oinarrizkoa dira erregai fosilen sorkuntza banatua eta independentzia lortzeko. Udalak, tokiko erakunde gisa, horrelako ekimenak babestu beharko ditu eta/edo horiek sortzen lagundu.

UDALAREN HELBURUEN ETA HERRITARREN ARTEKO BIZIKIDETZA

5.1.2 apartatuan udalaren helburuak betetzeko udal titulartasuneko gutxieneko instalazio fotovoltaikoak xehatu dira (energia berriztagarrien % 32ko erabilera). Komunitate Energetikoen sorrera elkarbizitzan egon behar da, eta ezin da bata edo beste lehenetsi.

6.3 Informazioa eta gardentasuna

4/2019 Legean deskribatutako baldintzen eta helburuen artean, 26. artikulua dago (Publizitatea -informazioa eta gardentasuna-). Artikuluak honako hau deskribatzen du:

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak aditzera eman beharko du energia gehiago aurrezteko eta efizientzia energetikoa areagotzeko zer neurri hartu dituen, 14. artikuluan zehaztutako energia-jarduketen planak barne direla.
2.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak aditzera eman beharko du energia gehiago aurrezteko eta efizientzia energetikoa areagotzeko zer neurri hartu dituen, 14. artikuluan zehaztutako energia-jarduketen planak barne direla.
a) Energia-kontsumoa, eraikinen eta erabilitako energia-iturrien arabera banakatua.
b) Egindako auditoretzak eta emaitzak.
c) Zer neurri hartu eta zer inbertsio egin diren energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa hobetzeko, eta energia berriztagarriak sortzen dituzten instalazioak ezartzeko; horrez gain, lortutako emaitzak ere adierazi beharko dira.
d) Lege honetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko hartu dituzten konpromisoak zenbateraino bete dituzten.
e) Energiaren alorrean eskumena duen organoak, gainerako administrazioekin koordinazioan, lege hau onartu eta hilabeteko epean, urteroko txostenetan argitaratuko diren adierazleen gida proposatuko du.

Ildo horretan, Zumaiako Udalak beharrezko baliabideak ditu artikulu hori betetzeko inbertsio ekonomikoa edo baliabideen inbertsioa egin barik. Urola Kostako gainerako udalerriak bezala, SIE kudeaketa energetikoko tresna dauka. Horren bidez, puntu kontsumitzaile guztiak aztertzen dira (argiteria, eraikinak eta ibilgailuen atala). Dagoeneko funtzionatzen ari den aplikazio informatiko horrek argitalpen modulu bat dauka, eta datu eta grafiko horiek Udalak xede horretara bideratu nahi duen web-atariarekin lotu nahi ditu.

7. ERANSKINAK

Dokumentuan 2023 –2030 aldirako Zumaiako Energia Jarduketa Planari lotuta egindako zenbait iturri eta ikerketa aipatzen dira. Hona hemen dokumentu nagusi honi erantsitako erreferentziak eta dokumentazioa:

- 1. eranskina: Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea
- 2. eranskina: Gipuzkoa Jarduketa Energetikoko Plan Orokorra
- 3. eranskina: 2018ko elektrizitate kontsumoak
- 4. eranskina: 2018ko gas kontsumoak
- 5. eranskina:: 2021 Urteko komunikazioa EJ
- 6.eranskina: AP 2021 IDEA auditoretza
- 7. eranskina: Eraikinen, argien eta ibilgailuen atalaren 2018ko inbentarioa
- 8. eranskina: Eraikinen, argien eta ibilgailuen atalaren 2030eko inbentarioa
- 9. eranskina: Zumaia – Eraikinak.kmx (Google earth)
- 10. eranskina: Zumaia – EERR.kmz (Google earth)

Zumaian, 2023ko martxoaren 05ean

ESTORNES DORRONSORO, ANDREA (AUTENTICACIÓN)

Firmado digitalmente por ESTORNES DORRONSORO, ANDREA (AUTENTICACIÓN)
Fecha: 2023.03.22 08:34:42 +01'00'

Andrea Estornés Dorronsoro
Txekalde, Ingenieros Consultoreseko zuzendaria